

ASTEARTEA

2019/02/12
7. urtea, 1.004. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €



Tolosako Topic-eko aretoa hautetsontziz bete zuen Gure Esku Dago dinamikak, larunbatean. ENERITZ MAIZ

Tolosako bioaniztasuna biltzen duen lana, kalean

Udalak Landa Koaderno argitaratu du; 500 liburuxka atera dituzte eta doan eskuratu daitezke //2

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin 5.400 kilo bidali ditu Saharara

Janaria, eskola materiala eta garbiketarako produktuak bildu dituzte Tolosaldean //4

Altuna eta Artolaren arteko igandeko partida, erabakigarria

Artolak irabazten badu finalerdietarako txartela lortuko du, baina Altuna kanpoan geratuko da //6

«Euskal Herri osoa argiztatzea dugu helburu»

Gure Esku Dago dinamikak bost urteko zikloa borobildu eta urrats berriak emateko prest dagoela iragarri du Tolosan; Kataluniako hainbat buruzagiren aurkako epaiketaren harira elkarretaratzeak egingo dituzte //3



Martxoaren 16a
larunbata,
arratsaldeko
16:00etan eta
18:30ean,
Tolosako Leidor
antzokian

Sarrerak Tolosaldeko Atarian salgai ondorengo egun eta orduetan. Sarrerarik ez da erreserbatuko.

- Otsailak 4, astelehena: 15:30etik 18:00etara (Atarikideentzat, txartela ekarri beharko da)
- Otsailak 5, asteartea: 09:00etatik 12:30era (Atarikideentzat, txartela ekarri beharko da)
- Otsailak 6, asteazkena: 15:30etik 18:00etara
- Otsailak 7, osteguna: 15:30etik 18:00etara
- Otsailak 8, ostirala: 09:00etatik 12:30era
- Otsailak 11, astelehena: 15:30etik 18:00etara
- Otsailak 13, asteazkena: 15:30etik 18:00etara
- Otsailak 15, ostirala: 09:00etatik 12:30era

Eserlekuak zenbakiak izango dira eta bakoitzaren salneurria 8 eurokoa izango da.

Antolatzailea: Tolosaldeko Ataria
(San Esteban auzoa, 20, Tolosa
943 65 56 95 - ataria@ataria.eus)

Tolosako Landa Koaderno argitaratu berri du udalak

Inguruko animalia esanguratsuenak identifikatzen dituen lana argitaratu dute; 500 ale atera dituzte eta Udaten zein kultur etxean eskuratu daitezke, doan

Josu Artutxa Dorronsoro

Olatz Peon alkateak eta Alberto Luengo biologoak, Tolosako I. Landa Koaderno aurkeztu dute. Ekitaldian, Tolosak duen biodibertsitate aberatsaz, ekosistema baliotsuez, eta ingurumenaren oreka zaintzen eta babesten duten milaka espezieri buruz osatutako proiektuaz aritu ziren.

Udalak lana gauzatzea «beharrakoa» zela erabaki zuen, «inguruan zein altxor dugun ezagutzeko, eta bisitariek, esku-orri bat izan dezaten». Peonek, «eremu pribilegiatuan» bizi garela esan zuen, «nahiz eta bertakoak garenok, askotan ez jabetu. Milaka espezieren bizileku den ekosistema jakin baten parte gara».

2017an, udalak, Oria ibaian aurki daitezkeen hegaztien gida sortu zuela gogorarazi zuten. «Lan horrek izandako arrakasta handiak, proiektu hau gauzatze bidea ireki zuen; hortaz, herriko ekosistema nagusietako espezieen gida prestatzeari ekin zion Ingurumen departamentuak».

ERABILTZeko ETA IKASTEKO

Luengo bera izan da liburuen koordinatzailea eta idazlea. Tolosako biodibertsitatearen barruan, bost ekosistema aukeratu dituzte: ibaia, mendia, basoa, landa eta parkea. Koadernoan, 60 animalia identifikatzen dira, azalpen eta ilustrazioekin. Ba-



Zerkausiko goikaldean egin zuten Landa Koadernoaren aurkezpena. J. ARTUTXA

koitzak, argazki zabalgarri bat ere badu. «Espezies esanguratsuenen datuak ematen dira eta Tolosan nahiz inguruko udalerrietan noiz eta non ikusi diren ere zehazten da».

Tolosan azken hiru urteetan egindako behaketen emaitza da lana. Luengok azaldu zuenez, Tolosako fauna aniztasuna ezagutzea eta balioan jartzea nahi dute.

90 orritan zehar, landa eremuko ibilbideetatik lasai eta adi ibiltzeko gonbita luzatzen du, bertako bioaniztasuna behatzeko, ikasiz eta gozatuz. «Herriko ekosistema desberdinetara gerturatzeko aitzakia eskaintzen du», gaineratu zuen biologoak.

DOAN ESKURAGARRI

Tamaina txikikoa denez, «erraz eramateko modukoa» dela esan zuen. Luengok aitortu zuen era berean, egin dituen lan guztien artean hau izan dela «politena». Bestetik, elkarlanari eman nahi izan zion garrantzia. «Udalaren laguntzaz gain, Iñigo Muñoz Ingurumen teknikariak egindako lan bikaina goraiatu nahiko nuke, baita itzultzaileek, Iñaki Mezquita argazkilariak eta Xabier Mendarte marrazkilariak egindakoa ere».

Guztira 500 ale argitaratu ditu udalak, nahiz eta salmenten arabera, gehiago publikatzea ere aurreikusten duten. Doanekoa da eta eskuragarri dago Udaten eta kultur etxean. «Eskuarte hartzten duen edonori inguruko mendietan eta landa guneetan ibiltzeko gogoia piztuko zaio, eta gehiago erreparatu dio inguruan dugun ekosistemari. Hori da balioan jartzeko modu onena» esanez amaitu zuen Peonek.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Zaintza lanak eta etxeko lanak. Adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko norbait behar da. Interesa duenak, deitu dezala 666 739 044 telefono zenbakira.

Herriko bideak garbitzen eta diseinatzen

Bi urtetarako mantenu plana jarri dute abian Tolosan; proiektuaren helburua da bizi kalitate hobea bermatzea

J. Artutxa

Tolosako landa bideak eta bide bazterretako sastrakak garbitzeko bi urteko plangintza osatu du Udalak. Helburua herriko erabilerak publikoko bideak baldintza onetan mantentzea da. Udaletik esan dutenez, «landa eremua eta hirigunearen arteko bide sarea egoki mantentzeko proiektuaren baitan kokatzen da». Bide horiek, baseritar eta auzotarren aldetik eta natur eta kirol turismoaren ikuspegitik, «erabilerak anitzekoak direla» aitortu dute.

Horegatik, landa ibilbideen berreskurapen, zaintza eta bide berrien sorkuntza dihardu udalak. «Bertakoen bizi kalitatea bermatu, eta bestelako ekintzak sustatu ahal izateko, bideen kudeaketa egokia egitea». Hain justu, behar horri erantzuten dio mantenu plan berriak.

Bide publikoen bazterretako sastrakak garbitzeaz gain, zuhaitzak eta luizi txikien ondorioz eroritako lurra eta haitzak ere kenduko dituzte. Baserrietara doazen bideetan, bi garbiketa egingo dituzte urtean. Lehena, udaberrian, apirilaren 1etik ekainaren 30a bitarte; bigarrena, udazkenean, irailaren 1etik azaroaren 30a bitarte. Beste bideetan, berriz, urtean garbiketa bat egingo da, ne-

guntan, urtarrilaren 1etik apirilaren 1a bitarte. Guztira, 63.949 metroko eremua garbitzea aurreikusiko du udalak; %90, 58.136 metro, baserri bideak eta landa bideak osatzen dute, eta %10, 5.813 metro, ezohiko zerbitzuetara bideratuko da. Bi urtetarako plangintza da, eta guztira, 44.000 euroko inbertsioa burutuko du udalak.

IBILBIDE BERRIAK DISEINATZEN

Bestetik, udala landa auzoetan oinezkoen ibilbide berriak diseinatzeko azterketak egiten ari da. Egungo ibilbide homologatuen analisia egin da, eta herritarren ekarpenak ere jaso dira. Otsailaren bigarren hamabostaldian, auzotarrek burutuko dira parte hartze saioak; landa-auzo bakoitzeko saio bat.

Behin auzotarrek hitz egin da, bigarren bilera ireki bat burutuko da mendi talde eta alorreko eragileekin. Horrela, martxoan proposamen berriak prest egongo dira. Ingurumen Sailak auzo bakoitzean gutxienez bi ibilbide abian jartzeko konpromisoa hartu du. Martxan jartzeak ibilbideak prestatu, atondu, seinaleak jarri, behar ezberdinak estali eta mantenu lanak burutzea dakar. Egun, Tolosan, homologatutako 3 ibilbide motz daude, Aldaba, Urkizu eta Bedaio auzoetan.

Rondilla kalea itxita egongo da, asfaltatze lanak direla eta

TOLOSA // Atzo goizean hasi ziren lanak, eta ostiral arratsaldean bitarte luzatuko dira. Kale osoko asfaltatzea burutuko da, eta, ondorioz, egunero bertatik igarotzen diren herriko, eskualdeko nahiz lurraldeko zerbitzuetako autobusen geralekuak lekuz aldatuko dira. Gainera, kalea trafikoa itxita egongo da, eta garajeetara Trianguloa plazako aldetik edo Gorriti plazako aldetik sartu ahal izango da.

Biomasaren inguruko kafe solasaldia, bihar, kultur etxean

TOLOSA // Piztu Tolosaldea Tolosaldeko Energia Planaren harira, HAZI erakundeak eskualdeko baso publikoko biomasaren potentziala aztertu zuen 2017an. Bihar, 18:30ean izango da solasaldia, Tolosako kultur etxean, eta helburua, eskualdeko eragileekin biomasaren estrategiaren bide orria zehaztea da. Besteak beste, Xabier Estebanek, Iker Karrerak eta Iñaki Aizpuruk hitz egingo dute.



Auzipetu katalanei babes mezuak bidaltzeko deia

Gure Esku Dagok deituta elkarretaratzeak egingo dira Kataluniako epaiketaren harira, gaur; Tolosa, Ibarra eta Zizurkilen 19:00etan bilduko dira eta Anoetan 19:30ean

Irati Saizar / Jon Miranda

Gaur hasiko da Kataluniako politikari eta gizarte mugimenduetako buruzagi independentisten aurkako epaiketa Espainiako Auzitegi Gorenean. «Erabakitze eskubidearen aurkako epaiketa, herrien autodeterminazio eskubidea ukatu nahi duen epaiketa» izango da, Gure Esku Dago dinamikaren arabera.

Horren aurrean, elkarretaratzeak egingo dituzte, gaur, eskualdeko hainbat herritan. Tolosan, Ibarra eta Zizurkilen 19:00etarako egin dute deialdia eta Anoetan 19:30erako. Tolosan Trianguloa plazan elkartuko dira, ibarretrek plazan egingo dute, Zizurkilen Joxe Arregi plazan egin dute hitzordua, eta Anoetan ere, herriko plaza beteko dute. Elkarretaratzerik antolatatu ez den herritarrek gertuen geratzen zaien herrira agertzeko gonbidapena egin dute.

Erabakitze eskubidearen aldeko dinamika ordezkaritza

bat bidaliko du, gaur, Madrileran, «preso politikoei babes adierazteko, eta bidegabekeria honen aurkako konpromisoa adierazteko, beste behin ere». Gure Esku Dagok pasa den astean egin zuen agerraldia, eta Jone Amonarriz dinamikako komunikazio arduradunak adierazi zuenez, epaiketa «denon kontua» da. «Prozesu judizial honek oinarritzko eskubideak urratzen dituelako, eta beraz, guztion eskubide zibil eta politikoak daudelako jokoan», gaineratu zuen. Agerraldi amaieran hiru aldarrikapen nagusi nabarmendu zituen: «Konponbidea, demokrazia eta askatasuna».

IGANDEKO HITZORDUA

Gaurko elkarretaratzeaz gain, otsailaren 17an manifestazioa antolatuko dute Donostian. Gros auzoko Katalunia plazatik abiatuko da, 12:00etan. Joango direnei jantzi, osagarri edota xingola horiak eramateko deia egin die, eta epaiketak irauten duen bi-



Topic aretoa hautetsontziz bete zuten larunbatean Gure Esku Dago dinamikako ordezkariek. JON MIRANDA

tartean ere kolore horia nabarmentzeko gauza bera eskatu dute. «Elkartasun kolorez jantziko ditugu Donostiako kaleak». Dinamikak berak euritakoak jarriko ditu eskuragarri manifestazio egunean ibilbidearen hasieran eta amaieran.

ZIKLO BERRI BAT

Bestalde, bost urteko zikloa boroildu eta urrats berriak egiteko prest dagoela erakusteko agerraldia egin zuen Gure Esku Dago, larunbatean, Tolosako Topic aretoan. Dena den, etapa berriaren nondik norakoak aditzera emateko ekitaldia martxoaren 31n egingo dute Bilboko Euskalduna Jauregian. «Heldu zein gazte, emakume, gizon ala beste, bateko zein besteko, guzti-

guztiak gonbidatuta zaudete hitzordu honetara», esan zuten Larrantz Zubeldia eta Sugoi Etxarri bozeramaleek. Dagoeneko ekitaldian izena emateko aukera dago Gure Esku Dago dinamikaren webgunean.

Herri galdekete eman duten emaitzaz «harro» daudela esan, eta orain, oinarria zabaltzen jarraitu nahi dutela azpimarratu zuten. «Orain arte 208 herri argiztatzeko gai izan gara, eta hemendik aurrera, Euskal Herri osoa argiztatzea dugu helburu». Ekitaldian nabarmendu zuten, 218.248 herritarrek hartu dute parte galdeketeetan.

Hautetsontziak eskutan hartuta 208 herri horietako ordezkariek bete zuten Topic-eko areto nagusia, eta Zubeldiak eta Etxa-

rrik aipatu zuten, «elkarrekin ahalduzko, ikasteko, gaitasun tekniko, ekonomiko eta kolektiboak bereganatzeko edota demokrazian sakontzeko» aukera izan dute herritarrek orain arte egin diren galdeketeetan. «Gugan sinesteko aukera eman digute hautetsontziek, zer nahi dugun eta nola erabaki nahi dugun jabetzeko, urteetan aurpegira begiratu ez diogunari eskua emateko».

Bost urteko zikloari amaiera eman eta orain, eragiteko garaia dela azpimarratu zuten dinamikako kideek. «Ezer ez dagoen zaur, dena da posible. Orain da unea. Herritarren unea. Etorkizuna gure eskuetan sentitzen dugulako, prest gaude erabakira iritsi arte lanean jarraitzeko, lurra ereiten segitzeko».

GUTUNA

Ibaiak, guk bezalaxe, eskubideak ditu

Duela aste batzuk ATARIAN argitaratu zen *Itsasoan gertatzen dena, gure etxe parean hasten da* gutuna, eta honek lotura zuzena dauka hausnarketa harekin.

Ikus genezakeen bezala, hondakin mordo bat pilatuta zegoen Ori ibaian, Tolosa herrian, Armeria plazatik oso gertu.

Dakigunez, azken urteetan, hau komunikabide batzuek argitaratu zuten, eta haien artean ATARIA ere bai, Tolosako Uda-

lak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, AZTIK eta Ekolurrek izokinak askatzen dituzte leku berean, Arrainen Migrazioaren Nazioarteko Egunean, eta guztiz txalotzekoa da. Hori horrela, uste dugu horrelako zikinkeriak egotea ezin dela berriro gertatu.

Ezin dugu birpopulatu, eta aldi berean, hondakin horiek uraren bidez ibaian sakabanatu, azkenean, guztiek itsasoan bukatu dezaten. Kontraesan handi bat dago.

Zabor hauek zuzenean bota zizutzen ibaira, eta esan dugun bezalaxe, dagoeneko hondakin horiek ez daude bertan, urak era-

man dituelako. Hondakinak eta zaborrak ez daude gure zain, uraren menpe baizik, eta horrela gertatu da berriro ere.

Eguzki taldekook beti esan izan dugu ibaiak plastikozko autobideak direla, eta hemen frogatu dugu, eta gutunean idatzita daukaguna bete egin da. Zoritxarrez, sinesgarritasun osoa ematen dio.

Geroz eta gehiagotan ari gara ikusten eta entzuten itsasoan geroz eta plastiko eta zabor gehiago dagoela, eta kalte izugarriak ari direla sortzen. Horrelako jarretarak, ibaian hondakinak ikusteak, ez du ezertan laguntzen, alde-

rantziz, sekula ez dugu jakingo zenbat kilo hondakinak bukatzen duten itsasoan jokabide hauen ondorioz, eta ondo egongo litzateke herria geroz eta kontzienteago izatea.

Tolosako Udalarik eskatu diogu, alde batetik, jendea hezi dezala, kontziente izateko ibaiak gorputz bat dela, eta guk bezalaxe eskubideak dituela, eta bestetik, lehenbailehen, halako jokabideak eragozteko neurriak har ditzala.

Horrez gain, garbi azaldu dezala onartezina dela gaur egun edozer botatzea ibai eta erreketara. Herritar guztiak daude be-

hartuta hondakinak dagozkien tokira eramatera, horretarako herrian zehar dauden eduki-ontzien bidez. Ez dago gertaera honen inguruko justifikaziorik, denon eskubideak urratzen ditu. Mezua honen bozgorailua izan beharko luke.

Dagoeneko, Tolosako Udalarik gure kezka helarazi diogu, eta zer erabaki hartuko duen erantzuteko zain gaude.

Abagune polita dauka Tolosako Udalak esku artean. Ezer ez galtzeko, eta dena irabazteko daukagu.

Gorka Alberdi eta Asier Manso
Eguzki erakunde ekologista



IBARRAKO MISIO TALDEARENTZAT, 4.750 EURO

Casino elkarteak hirugarren urtez antolatu du Txotx Solidarioa, eta ostiralean, 80ko hamarkadako Realeko jokalariek ireki zuten txotxa, Zerkausion. Ibarako Misio Taldearentzat izan da bertan bildu duten dirua; 4.750 euro. 80ko hamarkadan Realak liga irabazi zueneko jokalariek izan zuten txotx irekiera egiteko ohorea, eta eskualdeko ekoizle eta sukaldarien esku geratu zen menua. CASINOELKARTEA



BERTSOA AITZAKIA HARTUTA

Bertso berriak, geronek jarriak bertso jarrien afariaren aitzakian, giro aparta bizi izan zuten, ostiralean, Amezketan. Lehenik eta behin herriko beheko tabernetatik egin zuten kantujira, eta afaltzeko, 40 pertsonatik gora bildu ziren. Herriko eta eskualdeko hainbat bertsolari eta bertsozale izan ziren Amezketako Beartzana jatetxera gerturatu zirenak. Hamar bertso sorta izan ziren kantatu zituztenak. ATARIA

5.400 kilo bildu dituzte Saharara bidaltzeko



Bildutako produktu guztiak kaxetan sartu eta kamioia kargatu zuten. ASIER IMAZ

Tolosaldea Sahararekin Elkarrekin janari eta produktu bilketa egin du, Saharara bidaltzeko

Erredakzioa

Janaria, eskola materiala eta garbiketarako produktuak bildu ditu eskualdean Tolosaldea Sahararekin Elkarrekin. Guztira, 5.400 kilo osatu dituzte.

Ostiral arratsaldean abiatu zen Saharara, eskualdean bildutako produktuekin betetako kamioia. Tolosaldea Sahararekin Elkarrekin lehendakariak, Agustin Agotek, balantze positiboa egiteaz

gain eskerrak eman nahi izan zituen: «Lehenik, taldean sartu diren gazteei, animo berriak ekarri dituztelako, eta eurei esker leku gehiagotara iritsi garelako. Bestetik, eskualdeko udaletxei eta Limousin Kartoiak enpresari. Baina gehienbat herritarrei, erakutsi diguten elkartasunagatik. Janari denda eta komertzioak ere ezin ditugu ahaztu, kanpaina aurrera ateratzen lagundu digutelako».

Agotek nabarmendu zuen elkartasun politikoa «ezinbestekoa» dela, eta gaineratu «Europar Batasunak bete dituen akordioei kontra» egin behar dela. «Maroko ari da ustiatzen Saharak dituen

lehengaiak», esan zuen. Pello Estanga Anoetako alkateak arrazoiak gogora ekarri zituen: «Duela 44 urte, Marokok, Sahara Mendebaldean okupatu zuen, Espainiaren laguntzarekin. Ihes egin behar izan zuten herritarrek, eta oraindik arazoak hor jarraitzen du».

Laguntza ematen jarraituko dutela gaineratu zuen, baina «laguntza hau petatxu bat da». Eta gaineratu, «Marokok Saharak lurretatik alde egiten ez duen bitartean, arazoa ez da konponduko». Bere ustetan, «arrakastatsua izan da bilketa, eta jende askok parte hartu du».



TOPAGUNEA, INFLEXIO PUNTU

Alegian Gazte Topaketak egin dituzte, asteburuan. Eskualdeko eragile ezberdinak ordezkatzeko 40 bat gazte inguru elkartu dira. Gazte asanbladak, eragile feministak eta ikasle mugimenduko hainbat eragilek egin dute bat. Beraien artean komunikatzea dute helburu «antolatzen ditugun ekitaldiak koordinatzeko, eta gazte problematikari begira aurkitzen ditugun auziei erantzuteko». Antolakuntza jorratu dute, eta aurrera begirako il-doak ere markatu nahi dituzte gai ezberdinen inguruan. Inflexio puntutzat hartu dute topagunea eztabaidak aurrera eraman ahal izateko. E. MAIZ

Migdiila

Bizi - Jantzi

Emakume, gizon, haur eta gazteentzako arropa eta osagarriak

OUTLET

Otsailak 15, 16 eta 17
Beasaingo Igartza Jauregian
10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:30

Doako sarrera

Taberna - Kutixiak - Umeentzako tailerra - Opariak - Erakusketa - eta abar

Loreek eta landareek jendea erakarri dute

Urteko lehen azoka bereziak jende asko elkartu du Tolosako Trianguloa plazan; era askotako lore eta landareak erosteko aukera izan zen

Eneritz Maiz

Tolosako Lore eta Landare Azokak hartu zuen larunbat goiza Trianguloa plazan. Urteko lehen azoka berezian, eguzki izpiek, distira berezia eman zieten landareei, eta jende ugari ibili zen zuhaitz eta lore landareak erosten.

Euskal Herriko 16 mintegik jarria zuten postua. Era guztietako landareak erosteko aukera izan zen, eta zuhaitz landareak erosteko ilarak ere sortu ziren. Erosleek zituzten zalantzei azalpenak ere eman zizkieten postuetako saltzaileek, eta goizean goizetik ibili zen jendea postuz postu.



Jende asko pasa zen lore eta landareen postuetatik, larunbatean, Trianguloan. E. MAIZ



TOLOSAKO EAJ-REN HAUTAGAITZA

Larunbatean eman zituzten ezagutzera Olatz Peonek gidatuko duen hautagaitzaren 9 izenak. Taldearen «gaztetasuna, esperientzia, aniztasuna, berritasuna, ilusioa, lanerako gogoia eta gaitasuna», nabarmendu zituen alkategaiak. Hautagaitza honako 10 lagunek osatzen dute: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturgain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga eta Xarles Iturbe Pasaban. J. MIRANDA

Erizainek sinadurak bildu dituzte Tolosan

Satse sindikatukoek Plaza Zaharrea pasa zuten larunbat goiza; TOPAK kultur etxean egin zuen batzarra



Satse sindikatuak sinadura bilketa egin zuen, Tolosan. J. MIRANDA

Erredakzioa Tolosa

Herri ekimen legegile bat aurrera eramateko sinadura bilketa egin zuen Satse sindikatuak, Plaza Zaharrea.

Gaur egun, 7,1 erizain daude mila biztanleko Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Europan, berriz, batzaz beste 8,8. Erizain bakoitzeko paziente kopurua lege bidez arautzeak, «kalitatezko zainketa arduratsu, seguru eta parekidea bermatuko luke estatu osoan zehar», Amalia Gonzalez Satse sindikatuko ki-deak aipatu duenez.

Lan baldintza horietan lan egin da, «oso zaila» omen da,

«arreta humanizatua, segurua eta kalitatezkoa» bermatzea. Hori aldatzeko, erizain gehiago behar dira, eta sindikatuak herri ekimen legegilea abiatu du eskakizuna Espainiako Kongresura eramateko.

Bestalde, TOPAK batzarra egin zuen kultur etxean. Azken 35 urteetan Osakidetza eskualdean utzitako zorrak ezagutarazi zituen: «Hitzarmena sinatu zenetik, 200 euro zor dizkigute urteko eta biztanleko». Diru hori ez dela euren zuzeneko arretara bideratu eta, ondorioz, «Osakidetza Tolosaldean 35 urtean metatu duen zorra, gutxienez, 125 milioi eurokoa da».



Kultur etxea bete zuten herritarrek, TOPAren batzarrean. E.M.



TXOOOTX
ANIMATU!!
URTARRILAK 19
APIRILAK 27
TOLOSATIK AUTOBUSA

ISASTEGI
~ SAGAROTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGL.COM

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

19. jardunaldia

Lauburu-Pinseque	8-6
Esc. Ciu. Guadalajara-Laskorain	6-2

Saillkapena

1. Alzira FS	43p
2. Tafatrans Vulcan. Ruiz	39p
3. Lauburu Ibarra	39p
10. Laskorain	22p

Hurrengo jardunaldia

(otsailak 23 eta 24)

Laskorain (10)-Santurtzi (14)	
Alzira (1)-Lauburu (3)	

GIPUZKOAKO SENIORRAK

9. jardunaldia

Idiazabal-Samaniego Orixe	5-2
Eskoraitza-Lauburu	1-1
Anoeta FT-Ordizia	1-3

Saillkapena

1. Ordizia	27p
2. Lauburu Ibarra	22p
7. Anoeta	6p
8. TEEP Samaniego Orixe	0p

Hurrengo jardunaldia

Anoeta F.T. (7)-Eskoriatza (5)

Sama. Orixe (8)-Garoa Taberna (4)	
Ordizia (1)-Lauburu Ibarra (2)	

Boleibola

EUSKAL LIGA, BIGARREN MAILA

17. jardunaldia

Tolobolei Bidebide	3
Universidad de Deusto	0

Saillkapena

1. C.V. Astillero	16-0
2. Cocinas Duetto Aranbizkarra	13-4
6. Tolobolei Bidebide	10-7

Hurrengo jardunaldia

Tolobolei Bidebide (6)

Navarvoley Fercor Serigrafia (13)	
-----------------------------------	--

Futbola

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

21. jardunaldia

Tolosa CF-Hernani	0-0
-------------------	-----

Saillkapena

1. Eibar	50p
2. Anaitasuna	48p
3. Tolosa CF	40p
4. Hernani	37p

Hurrengo jardunaldia

Mutriku (6)-Tolosa CF (3)

ERREGIONAL PREFERENTEA,
LEHEN MULTZOA

20. jardunaldia

Tolosa CF 'B'-Billabona KE	2-0
----------------------------	-----

Saillkapena

1. Euskalduna	52p
2. Touring	40p
5. Billabona KE	34p
7. Tolosa CF 'B'	33p

Hurrengo jardunaldia

Euskalduna (1)-Tolosa CF 'B' (7)

Billabona KE (5)-Ast. Mundarro (3)	
------------------------------------	--

LEHEN ERREGIONALA,
BIGARREN MULTZOA

20. jardunaldia

Danena-Astig. Mundarro	1-1
Euskalduna-Intxurre	0-2

Saillkapena

1. Axular	45p
3. Danena	42p
5. Intxurre	39p

Hurrengo jardunaldia

Intxurre (5)-Danena (3)

Eskubaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

19. jardunaldia

Tolosa CF-Jacar San Antonio	28-27
-----------------------------	-------

Saillkapena

1. Anaitasuna	34p
2. Tolosa CF	32p
3. Ereintza	28p
4. Casablanca	25p
5. Trapagaran	24p

Hurrengo jardunaldia

El Pilar Maristas (9)-Tolosa CF (2)

Saskibaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

15. jardunaldia

BKL Senior Mutilak	54
Redline Mekanika TAKE	65

Saillkapena

1. Ulacia Grupo	12-3
2. Tabirako Baque	11-4
3. LBC Cocinas.com	11-4
6. Redline Mekanika Take	9-6

Hurrengo jardunaldia

Red. Mek. Take (6)

Universidad Deusto Loiola (8)	
-------------------------------	--

GIPUZKOAKO LEHEN MAILA

14. jardunaldia

Caf. Aitona Askatuak-TAKE	48-41
---------------------------	-------

Saillkapena

1. Txintxu Gozotegia ISB	14-0
2. Ostadar	12-2
3. Cafes Aitona Askatuak	10-4
8. TAKE	5-9

Hurrengo jardunaldia

TAKE (8)-Añorga Saskibaloia (7)

Artolak irabaziz gero,
finalerdietara doa, eta
Altuna III.a kanpora

Iñaki Artola, binakako txapelketako pilota aukeraketa batean. A. IMAZ

Asier Imaz

Eskuz binakako lehen mailako ligaxka amaitzeko bi jardunaldi besterik ez dira geratzen, eta datorren igandean, 17:00etan, Altuna III.ak eta Artolak elkarren aurka jokatuko dute, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Erabakigarria izango da partida hori.

Izan ere, asteburu honen ondoren binakako txapelketa estu jarri da. Finalerdietarako ligaxkan lau bikoterentzat bakarrik dago lekua, eta bi jardunaldiren faltan, Elezkano II-Ezkurdia bakarrik daude sailkatuta. Beste hiru posturen lehian bost bikote daude. Aurreko urteetan, zazpi garaipen lortu dituen bikotea finalerdietan izan da, baina aurreten, zortzirekin kalean gera daitetzeke.

Kasu hori emanez gero, txapelketatik kanpo geratuko den bikotea Artola-Mariezcurrrena II.a izango litzateke. Hala eta guztiz ere, oraindik finalerdietara pasatzeko aukera euren eskuetan dute. Horretarako, igandeko partida irabaztea nahikoa izango lukete. Kasu horretan, nahiz eta jardunaldi bat falta, txapelketatik kanpo Jokin Altuna geratuko litzateke.

ZORTZINAKO BERDINKETA

Lau bikote zortzi punturekin geratzeko, 11. jardunaldian, asteburu honetan, ondorengo emaitzak eman beharko lirateke: Altuna III-Martija bikoteak Artola-Mariezcurrrena II.ari irabaztea; Irribarria-Zabaletak Urrutikoetxea-Aretxabaletari

irabaztea (galduz gero, azken partida irabaztea) eta Olaizola II-Albisuk Elezkano II-Rezustarekin galtzea (edo iragaziz gero azken partida galtzea). 12. jardunaldian, azkenengoan, Artola-Mariezcurrrena Ezkurdia-Galartzari irabaztea; Altuna III-Martijak Bengoetxea VI-Imazi irabaztea eta Olaizola II-Albisuk Irribarria-Zabaletari irabaztea.

Emaizta horiekin, lehen aldiz, lau bikote zortzi punturekin izango lirateke lehen ligaxkaren amaieran. Saillkapena egiteko, elkarren arteko puntuak kontatu behar dira, eta hortik, ondorengo saillkapena ateratzen da: Olaizola II-Albisu 4 puntu; Altuna III-Martija 3 puntu; Irribarria-Zabaleta 3 puntu; eta Artola-Mariezcurrrena 2 puntu.

Kiniela horiek, ordea, betetzetik oso urrun daude. Errealitateak beste zerbait erakusten du. Egun, saillkapen nagusian Artola-Mariezcurrrena II.a hirugarren postuan daude zazpi punturekin. Asteburuan garaipen handia lortu zuten Arteaga-Albisuren aurka: 22-15. Azken hiru partidetatik, beraz, bi irabazi dituzte. Eta eurentzat garrantzitsuena, igande honetan irabaziz gero finalerdietan izango lirateke.

Jokin Altuna amezketarra saillkapenean bosgarren postuan dago, Martijarekin bikotea osatuz. Sei puntu dituzte Aspeko pilotarietara. Bi jardunaldiren faltan, bi puntuak irabazi beharrean daude, zazpi garaipenekin txapelketatik kanpo baitaude. Lehen finala igande honetan joka-

BINAKAKO TXAPELKETA

12. jardunaldia

Altuna III-Martija	22
Elezkano II-Rezusta	08
Artola-Mariezcurrrena II	22
Arteaga II-Albisu	15

Saillkapena

1. Elezkano II-Rezusta	9-3
2. Irribarria-Zabaleta	7-5
3. Artola-Mariezcurrrena II	7-5
4. Olaizola II-Albisu	7-5
5. Altuna III-Martija	6-6
6. Ezkurdia-Galartza	5-7
7. Bengoetxea VI-Imaz	4-8
8. Urrutikoetxea-Aretxabaleta	3-9

Hurrengo jardunaldia

Altuna III-Martija

Artola-Mariezcurrrena II	
--------------------------	--

PROMOZIO TXAPELKETA

6. jardunaldia

Ugalde-Erostarbe	22
Alberdi-Erasun	15
Arretxe II-Urretabizkaia II	11
P. Etxeberria-Garmendia	22
Mendizabal III-Ruiz	08
Peña II-Aranguren	22

Saillkapena

1. Agirre-Salaverri	5-1
2. Etxeberria-Garmendia	4-2
3. Elordi-Etxeberria	4-2
4. Peña II-Aranguren	3-3
4. Ugalde-Jaunarena	3-3
6. Dario-Ruiz	2-4
7. Arteaga II-Urretabizkaia II	2-4
8. Alberdi-Erasun	1-5

tuko dute Beotibar pilotalekuan, Artola-Mariezcurrrena II.aren aurka.

OLAIZOLAREN ORDEZKOA

Finalerdietako ligaxkari begira, ordezkapenak zeresana ematen ari dira. Albisu sailkatuz gero, aurrelari finkorik gabe egongo litzateke, Olaizola II.aren lesioa medio. Araudiaren arabera, lehen ligaxkako enpresa bereko edozein aurrelari jokatu ahalko du Albisurekin. Horrek Bengoetxea VI.ari eta Urrutikoetxeari Albisurekin jokatzeko aukera ematen diote. Baina Iñaki Artola berari ere, lehen aipatu zortzina-ko berdinketa suertatuz gero.

Mendizabal, bigarren Emakumea Pilotarin

Erredakzioa Anoeta

Eskuz binakako Emakumea Pilotari Txapelketaren lehen mailako finala jokatu zen ostiralean, Zestoan, eta Mainer Mendizabal anoetarrak, Nora Mendizabal bikote zuela, 22-12 galdu zuen Urien-Espinar bikotearen aurka.

Hasieratik txapeldunek tartea ireki zuten markagailuan, eta 10-2 jarri ziren. Ondoren, abantaila horri eustea nahikoa izan zen partidaren bigarren zatian txapela eramateko. Txapeldunordeak saiatu ziren markagailuari buelta ematen, baina ezinezkoa izan zen. Espinar izan zen partidako onena.

Ligaxkan elkarren aurka jokatutako partidarekin zerikusirik ez zuen izan finalak, ligaxkan



Mainer Mendizabal, finalaren une batean. GIPIZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA

Mendizabal-Mendizabal bikotea gailendu baitzen.

Lehen mailako finalaren aurretik bigarren mailakoa jokatu

zen Zestoako pilotalekuan, eta bertan Zubizarreta-Badiola bikoteak 22-14 irabazi zion Artea-ga-Agirre bikoteari.



HAMASEI PILOTARI

Behar Zana Pilota elkarteak antolatutako III. Emakumeen Pala Txapelketa Azkarra jokatuko zen larunbatean Bearzana pilotalekuan. Guztira zortzi bikote lehiatu ziren eta irabazleak Amaia Gonzalez eta Laura Carretero izan ziren, finala 16-9 irabaziz Edurne Osa eta Aitziber Ezeizari. JON MIRANDA

Eunate Martinez de Rituerto, podiuma Espainiakoan

Erredakzioa

Eunate Martinez de Rituerto Tolosa CFko atletak hirugarren egin du Espainiako 23 urte azpiko txapelketan, gorako jauzian. 1,67 metroko jauziarekin lortu du podiumean sartzea eta, era berean, Tolosa CFko marka berria jarri du. Martinez de Rituertok 60 metro hesietan ere parte hartu du, 10,15 marka eginez.

Salamancan jokatutako txapelketan, Tolosa CFko beste hiru atletek parte hartu zuten. Julen Martinek 60 metro hesietan ha-



Eunate Martinez de Rituerto, eskuintean, podiumean. ATARIA

mabigarren postua lortu du, bere markatik gertu dagoen 8,69ko denborarekin. Emaizta hori bere hoberena da eta «pixkanaka goraka doala» erakusten duela azaldu dute klubetik.

Paula De Juanek zorte txarra izan zuen eta ondoezik sentitu zen lasterketa uanean. Ezin izan zuen bere mailan lehiatu eta 2.22 markarekin 800 metrotako finalerdietara iritsi zen.

Maddi Lillok 60 metrotan lasterketa ona egin zuen eta denboraldiko markatik ehuneko batera geratu zen, 8,08 eginda.

Hirugarren egin du Ibarak 540 kilotan

Erredakzioa Ibarra

Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren azken jardunaldia jokatu zen larunbatean, emakumezkoen 540 kiloko mailan, Txurdinagako kiroldegian. Goma gainean, Laukizko Gaztedi nagusi izan zen, tiraldi guztiak irabazita. 12 puntu horiekin eta aurrez lortutakoekin txapela irabazi zuten bizkaitarrek. Bigarren Badaioz sailkatu zen. Gasteiztarraren ondoren geratu zen Ibarra, Txantrearen aurretik.

540koa amaituta, 500ekoan hasiko dira ibartarrak. Hemen ere hiru jardunalditan erabakiko

da txapela, eta lehenengoa, hurrengo larunbatean izango da Berrizen.

GIZONEZKOAK 600 KILOTAN

Gizonezkoen 600 kilotan lehen jardunaldia jokatu zen larunbatean Txurdinagan. Hemen ere Gaztedi nagusitu zen, 7 puntu pilotuta. Ondoren Beti-Gazte geratu zen 6 punturekin. Murueta izan zen hirugarrena. Ibarra, Berriozar eta Ñapurrak parean geratu ziren, Antsoainen aurretik. Bigarren jardunaldia otsailaren 16an izango dute Berrizen. Finala otsailaren 23an jokatuko da, berriro ere Txurdinagan.

Hilberriak eta urteurrenak

Luziano Ormazabal Muruamendaraz

(Lierni Ormazabal gure lankidearen aita)

*Une latz hauetan
bat egiten dugu
famiariaren saminarekin*

Goierriko Hitzako lantaldea

BEASAINEN, 2019ko otsailaren 12an



Amaia Iriarte Beristain



*Zuk emandako bizipoza
gure argia da.
Asko maite zaitugu.*

ORMETXEKO LEHENGUSUAK

ORENDAIN, 2019ko otsailaren 12an



Amaia Iriarte Beristain

*Baliogarrie, Amaiaaren barne indarra ezautzea
Politte ta beharrezkoa zure laguntza jasotzea
Earra, alkar estimatze genuela sentitzea
Esker onez "Kaxera", Larretako oroimenean gordea!*

ORENDAIN, 2019ko otsailaren 12an



ASTEARTEA, 2019KO OTSAILAK 12
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
 anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Zauriak eta hausturak ixten joateko, 'Elkarri begira' eskultura

Asteburuan inauguratu dute Alberto Letamendiren lana; egileak «biktinek daramaten zama» ikusiarazi nahi izan du zauri denak baitira «ezberdinak eta bakarrak»

Eneritz Maiz Tolosa

Alberto Letamendiren *Elkarri begira* izeneko eskultura inauguratu zuten, larunbatean, Tolosako San Frantzisko pasealekuko 25. zenbakian. Tolosako Udaleko alderdi politiko guztiek parte hartu zuten ekitaldian, Bizikidetza Foroko ordezkariekin batera.

Olatz Peon alkateak (EAJ) eman zion inaugurazio ekitaldiari hasiera. «Artelana polita da, baina gehien gustatu zitzaiguna, artelan horrek atzean daukan filosofia da», azaldu zuen Peonek. «Bide batez, eskertu nahi ditut ekitaldi honetan parte hartuko duten eragile guztiak», eta nabarmendu zuen: «Munduan dauden gatazka guztiei egiten die erreferentzia Albertok, eta hori azpimarratu nahi dut. Horregatik artelanak oraindik eta garrantzia handiagoa hartzen du, eta unibertsalagoa bihurtzen da».

Christian Fernandez PSE-EEko zinegotziak, bere aldetik, «antzinako mamuak albo batera» uzten saiatu behar garela esan zuen, «indarkeriarik gabeko etorkizun bat eraikitzen jarraitzeko». Atzetik, EH Bilduko Ibai Iriarte zinegotziak hartu zuen hitza, eta lehenik eta behin Alberto Letamendi zoriondu nahi izan zuen, «jende guzti hau eskulturaren bueltan bildu izanagatik». Era berean lanak «gatazka eta biolentziaren inguruan egiten dugun irakurketa» oso ondo borobiltzen duela esan zuen. Oinarrian dagoenari eutsi nahi izan zion ere, Iriartek: «Botere harreman desorekak dira. Izan gizon eta emakumeen arteko biolentzia, hizkuntza eskubideak edo izan herri honek bizi duen gatazka politikoa. Botere desorekak dira biolentzia guzti horien jatorri, eta uste dut eskultura honek



Zeberio eta Biurrun eskuetan Letamendiren opariak dituztela. E. MAIZ

idea horri buelta handi bat ematen diola». Eskulturaren inaugurazioarekin eskubide berdintasunaren gaineko ibilbidean pausu bat gehiago eman dutela nabarmendu zuen: «Botere harremanak dira berdindu behar ditugunak, eta izan dadila hausnarketa kolektibo honen beste urrats bat gehiago, etorkizun hobe baterako bidean». Hasierako hitzei musikak hartu zien lekukoa Juantxo eta Miren Zeberioaren eskutik, eta ahotsa, Laskorain abesbatzako hurrek jarri zuten.

TESTIGANTZA GUZTIAK

Bizikidetze Foroko kideek luze hitz egin zuten: «Urte luzetan pairatu dugun indarkeriak, Tolosan, haustura eta sufrimendu asko utzi ditu. Orain artean bakoitzak bere aldeko edota berarengandik hurbilen egon diren biktimak soilik ikusi ditu, eta horregatik herritar bezala sufritu duten guztiei aurpegia jarri behar diegu. Ezezagunak diren testigantzak entzunik izan behar dira».

Txalo zaparradaren ostean, musikak lagunduta, Igor Estan-

konak poesia errexitatu zuen, eta jarraian, Laskorain abesbatzako hurrek abestu zuten. Ekitaldiarekin bukatzeko, Alberto Letamendi egileak, bere artelanaz hitz egin zuen: «Eskulturara gerturatu gero, bakoitzak dauka bere zehaztasuna, bere zuloak, bere akatsak... Hori dena da biktinek daramaten zama. Norbanako zauri denak dira ezberdinak eta bakarrak. Urrunduz gero, berriz, txoriak bezala, panoramika bat ikusten da, eta jendartea osotasunean ikustea ahalbidetzen du». Esker on asko banatu zituen Letamendik, baina horien artean bere bikotekideari emandakoak nabarmendu ziren, izan ere, eskulturako testua idatzi du. «Eskultura pentsatu nuenean 60 figura zeuden, baina, paretan jartzen ari nintzela 58 jarri nituenean, dena eginda zegoela ikusi nuen. Eta geratu diren bi eskultura horiekin, dohainik egin duten lanagatik, bi pertsona eskertu nahi ditut bihotzez, Garbiñe Biurrun eta Juantxo Zeberio», gehitu zuen. Amaieran jaso zuten bi tolosarrek eskultorearen oparia.

ASTEARTEA 12

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Zubimusu ikastolaren III. Jardunaldi Pedagogikoak: Sukalderitza. Saioa 17:15ean izango da Txermingo eraikinean.

Tolosa. *Ama ikusezinak* dokumentala, 18:00etan, kultur etxean, Jatorkin elkarteak antolatuta. Dokumentala eta gero, mahaiingurua egingo dute, eta bertan parte hartuko dute Lorenzo Benitez dokumentalaren zuzendariak eta Zubida Maalem Granadako Gurutze Gorriko teknikariak.

Alegia. Alberto Iñurrategiri buruzko *Porrotaren alde* ikus-entzunezkoa 19:00etan, kultur etxean.

Tolosa. Amaro azo elkartearen urteko batzara 19:00etan, Auzoetxean. Besteak beste, 2018ko balantzea egingo dute, auzoko medikuaren egoera izango dute hizketagai eta egoera ekonomikoa ere egingo dute.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Eguraldi egonkor eta eguzkitsua bueltan izango da. Goizeko behe-laino eta hodei baxuren bat salbu, egun guztian zehar giro eguzkitsua izango dugu. Haizeak ekialde/ipar-ekialdeko ukitua izango du egun amaiera arte, non orduan hego-ekialdetik finkatuko den. Tenperaturak igo eta maximoak 12-14 gradutan errendituko dira.

Bihar. Giro eguzkitsua eta are epelagoa. Goizen berriz ere behe-lainoa agertuko zaigu, baina goiz erdirako altxa eta

egun osoan zeru urdina eta giro eguzkitsua izango ditugu. Termometroak eguneko erdiko orduetan 14-16 gradutan joko dute goia.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguneko albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Joseba Landa Bartzelonatik, Elhuyarren Hizkuntza eta Teknologia tartea Klara Zeberioarekin eta Joanes Karrera arkeologoa.

11:00-12:00. Hamaiketako. Villabona-Aiztondoko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

16:00-18:00. Zebraidea.

18:00-20:00. Goizeko onena.

20:00-20:30. Kokondo. Oskar Tenaren musika saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

16:30. Elkarriketap (Aneguria).

17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:15. Ireki Kaxa (Jon Irisarri).

23:00. Zer jan.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko..

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefono zenbakia: 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza, Amaro azo, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

'Ghero' Euskaltzaindiaren eta Tartean Tearoaren arteko elkarlanetik sortutako obra bi sarrera zozketan

Otsailak 24, igandea
19:30 • Villabona, Gurea antzokia.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**